

EPAB-en Bruselan + Parisen 2026ko maiatzak Setatik 9rako ekitaldia

Informazioaren orria

Askorentzat, Bigarren Mundu Gerran nazismoaren aurka borrokatzen ziren iheslariak edo nazien okupaziotik ihes egiten zutenek —familia juduak, agenteak, erresistenteak...— hiru kokapen estrategiko zeuden zuten: Euskal Herria —Frantziaren eta Espainiaren arteko Pirinioetako mendebaldeko mendi-mugan— Brusela eta Paris hiriak.

Hamar urtez baino gehiagoz, EPAB (Euskal Pirinioak Askatasun Bideak) elkarteak omenaldia egin die, Pirinioetako mugan zeharreko ibilbide oroigarrien bidez, Pirinioetako ihesbideetan parte hartu zuten guztiei, baita Frantziako Biarnotik Espainiako Canfrancera doan zihoan *Canfranceko Schindler* sarean eta Kataluniako Pirinioetako *Walter Benjamin* lerroan-n ibili zirenei ere.

2025a lau ekitaldi arrakastatsurekin amaitu ondoren: Hernaniko Loidieko mendi gidarien monumentuan egindako omenaldia, alkatearekin; Aldude eta Quinto Realen arteko Pirinioetako zeharkaldia Paquita Bretosen omenez, mendi mugetako zeharkaldien eguneko txangoa eta EPABek 2015az geroztik ekitaldiak antolatu dituen lekuak; eta Somportetik Canfrancera itzultzea, 2026rako BPFTA proiektua, Brusela eta Parisko ihesbideetako beste bi toki giltzarri horiek bisitatzea da.

EPABen 2026rako plana iheslarien sareetako beste bi toki garrantzitsu bisitatzea da —Brusela eta Paris— hiri horietan bina gau emanaz. Bertan, sare klandestinoen parte izan ziren tokiak bisitatuko ditugu, hala nola zuloak. Ihesbideen bira garraio publikoan eta/edo oinez egingo da.

Izen-ematearen kuota 70 € da parte-hartzaile bakoitzeko, antolatzaileen/gidarien gastuak, garraio publikoaren gastuak (metroa, autobusa, trena) txangoetan zehar, eta erantzukizun zibileko aseguru estaltzeko. Parte-hartzaile bakoitzak bere aseguru pertsonala antolatu beharko du. Horretaz gain, berak izango du, baita ere, bi hiri horietan ostatu hartzearen eta Bruselara, handik Parisera eta Parisetik etxera joateko bidaiaren ardura.

Bidaia-egunak hauexek izango dira: maiatzaren 5etik 7ra Bruselan izango dira eta maiatzaren 7tik 9ra, Parisen.

Interesa dutenek basquefreedomtrailsww2@gmail.com webgunean eska dezakete izen-ematearen orria. Informazioa eta izen-ematearen orria laster argitaratuko dira EPABen webgunean (<https://www.bpftaww2.com/>).

Bruselan zein Parisen George Watt estatubatuar hegazkinlariaren urratsak jarraituko ditugu; Watt 1943an harrapaketa saihestu eta Euskal Pirinioetatik ihes egin zuen. Memoria historikoari lotutako ekimen hau, Hernaniren eta Euskal Herriaren artekoa, Bruselara eta Parisera eramango dugu: Andrée de Jongh *Dédée* erizain belgikar gazteari eta *Comète*-n, lerro horietako baten, sortzaileari omenaldia egingo diogu. *Dédée*k “paketeak” (iheslariak) mugaz gaindiko bidaia klandestinoetan gidatzen zituen gauzez, Florentino Goikoetxea Beobide hernaniar mugalariarekin batera. Era berean, haren aita Frédéric-i eta Dumon ahizpei -Nadine eta *Michou*- ere egingo diegu gorazarre.

2010ean, bi kontzentrazio-esparru nazietatik bizirik atera zen Nadine-k Hernaniko Batxilergoko ikasleei eta Donostiako Axular Lizeokoei hitz egin zien. Nadine iaz hil zen, 102 urte zituela.

Bruselan Jean Greindl (*Comète*), Catherine Crean irlandarra (*Luc/Comète* sareak), Ten Kate apaiz protestantea (*Holland-Paris* lerroa) eta Prosper Spilliaert (*Eva* sarea), besteak beste, omenduko ditugu.

Parisen, Robert eta Germain Ayle (*Comète*), Paul Campinchi (*Oaktree/Shelburne* sareak), Jean Weidner eta bere familia (*Holland-Paris* lerroa) eta Donald Caskie (*Garrow/Pat O'Leary* sareak), izango ditugu gogoan, beste askoren artean.

Bi hirietako Memoria Historikoaren erakunde batzuekin eta tokiko agintariekin harremanetan gaude oroitzapen ekitaldi bateratuak egiteko, eta haien eta Hernaniren eta Euskal Herriren arteko loturak sendotzeko edo ezartzeko.